



EUROPAREN ODISEA, GLOBALIZAZIOAN: *helmugarik gabeko bidaiia?*

Uztailaren 18-19-20a
Miramar Jauregia. Donostia-San Sebastián

HELBURUAK

Globalizazioa, gaur egungo ekonomia eta finantza krisialdian, zitzu bizian doan bidaiatzat hautematen da; Europar Batasunarentzat demaz eta mehatxuz beterik datorren bidaiatzat. Europaren etorkizunari buruz Jakintsu Taldeak taxuturiko gogoeta dokumentuak ohartarazten duenez, azken hamar urtea «asaldatzailea» izan da, eta «datorren hoge urtea segur aski kezagarriagoa izango da».

Hainbat hamarkadatan arrakasta ekonomikoak izan ondoren, eta gerrek suntsitutako kontinentea baketzea lortu eta gero, udako ikastaro honen helburua da hainbesteko mehatxua dakarren etorkizunaren aurrean eztabaidatzea, ea europar proiektua C. Cavafis poetaren Itaka bezain agortuta dagoen: «Itakak eman zizun hain bidaiia ederra. Itaka gabe, ez zenion bideari ekingo. Baina dagoeneko ez du ezer zuri emateko». Itxurazko agortze bat da, zeren eta, orobat poetak dioenez, Itaka (irakur bedi Europa) betiere pentsamenduan dugun eta globalizazioaren demen aurrean paralisia eta ekintza eza gainditzea ahalbidetzen digun helmuga baita. Utopia, poema epikoetan heroiek erakutsitako ausardia eta adimena europarrei kutsatzeko bidea emango duena; eta Europa hobe baterantz eta mundu hobe baterantz eramango gaituen bidaiia ederra akuilatzen duen helburua, horrela XXI. mende zirrargarri eta asalduzko honetan bizi izan beharko ditugun esperientzia eta abentura ugarietan hiltzea saihesteko.

*Europako federalismoa, irtenbide gisa?
Ba al da europar nortasunik?
Enplegua eta Ongizateko Estatu, elkarren aurka?
Ekonomia, XXI. mendean: merkatukrazia globala?
Europaren bahiketa berria, nazioartean?*

Horra hor ikastaroan aztertuko diren gaietako batzuk, gogoeta eta eztabaidarako hiru jardunaldi interesgarritan. Lehenengo jardunaldian, aztergai izango ditugu globalizazioari emandako ekintza erantzunak, eta mende berri honetan europar nortasuna berriz definitu beharra.

Bigarren jardunaldian, aztergai izango dira Europako ekonomian eta gizartean globalizazioak dituen eraginak. Arreta berezia eskainiko zaio bi kontzeptuen (ekonomia eta gizartea) arteko kontraesan gero eta handiagoari, eta zehatz-mehatz aztertuko dira Europako ekonomiaren ibilerari eragiten dioten faktore konplexu eta anitzak.

Hirugarren jardunaldian, eztabaidagai izango da Europar Batasuna gero eta gehiago galtzen ari dela lidergoa nazioartean, eragile global berriak agertzearekin batera. Eragile berri horietako zenbait, geografiaren, kulturaren, gizartearen, ekonomiaren eta politikaren aldetik oso urruti daude Europako eredutik, demokrazia, zuzenbideko estatu eta ongizateko estatu oinarri dituen Europako eredutik, nahiz eta gure eredu hau helburu unibertsaltzat aurkezten zen.

Laguntzaileak :